

... eta kitto!

Azken denboran izandako eboluzioaz, irakasleak bat datoz:

Eskola da, euskal munduan isla edo uharte zoriontsu bat.

Aurtengo Nafarroa Oinez-en entzundako leinari jarraituz, gure artean ere "ezina ekinez egina" edo horrelako zertxobait eman dela esan genezake. Eskolaurreko eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (OHO) Ikastegietan aukeratutako hizkuntza -modeluak, urteen

Guztira	
A Eredua:	639 (%17)
B Eredua:	1.788 (%46)
D Eredua:	1.424 (%37)
Ereduak portzentaika	

	A Eredua	B Eredua	D Eredua
Eskolaurrea Parbularioak	7	202	309
Hasiera zikloa 1 eta 2	14	402	235
Erdi zikloa 3., 4. eta 5	102	648	429
Goi zikloa 6., 7 eta 8	516	536	451
Ikasleak eredu eta zikloa			

	Publikoak	privatuak	ikastolak
A Eredua	375	264	--
B Eredua	765	725	298
D Eredua	84	383	957
Ikasleak eredu eta ikastetxe motaka			

badugu lortu. Gainera, klaustroen eta gurasoen adostasun guztia dugu". Ikastetxe honetan hartutako neurri berbera erabaki dute "La Providencia" edo Aldatzeko arduradunek.

"A" ereduak ez du balio. "D", ordea, modan

"A" eredu da, bestaldetik, desagertzen doana. Eredu honek -gai guztiak erderaz ematen diren bitartean, euskera asignatura bezala tratatzeak- ez du inolako zentzurik dagoeneko. Hezkuntzako kontzejala den Libe Betolazak honela dio: "Pena bat da lehenengo ez hastea beste eredu batekin, "A" baztertuz lehen momentutik. Dena den, ni "B" ereduaren alde nago, "B" indartu bat, hori bai. Horrela, benetazko elebitasunera iristeko hau da ikusten dudana bide egokiena: hizkuntza biak ikasiz, baina euskerraren aldeko joera batez, indarrean dagoen kontrakoa parekatuz. Bestelakoa, "D" ereduarena hain zuzen, handicap bihurtu liteke, erderaren

ezaguerari dagokionez".

Hala ere, azken hau, "D" eredu, lehen esan dugun ikastetxe pribatuetatik aparte, eskola publikoetan ere bere lekutxo ari da hartzen. Horrela daukagu Urkizu -bere filiarak diren Ondamendi eta Orbeako parbularioekin- eta San Andresko haurrak, egunero autobus batek biltzen dituztelarik. Bestalde, eredu hau aspaldidanik dago finkatuta Iturburu eta Alfako ikastoletatik kanpo, La Salle ikastetxe pribatuan ere.

Eskola moetak eta haurren zikloak

Ikastolen lerrotan D eredu a nagusi bada ere (Iturburu, Alfa, J. Olabe eta Orbean ez da bestelakorik ematen), "B" eredu Itzion ikusten da eta Sansaburun ere hogeit bat ume badira heuren ikasketak eredu honetan betetzen dutenak. Itzion jarraitzen den lanari buruz hango arduraduna den Arantza Urdangarinek, luzatu digu bere iritzia: "maila nahiko ona da ikas-

poderioz badirudite helburua lortzen doazela. Azken finean, hain aldarrikatua den benetazko elebitasuna da jokoa dagoena; gure haurren esku balego ez litzateke txarto egongo, baina eskoletatik kanpo somatzen denak ez dio gure hizkuntzari askotxo laguntzen.

ketak amaitzerakoan. Asko dira Institutoan nahiz Armagintza Eskolan heuren ikasketak euskeraz jarraitzen dutenak. Hemen urteko egiten dira plangintzak eta metodologia aldetik ere aldakuntzak emango dira. "D" mailan ere sartuak gara Eskolaurrean, umeen arabera bi linea jarraitzen dugularik, bata euskera dakitenekin eta bestea eza gutzen ez dutenekin".


Eskola publikoetan, ziklo desberdinetan ikus daiteke eman den eboluzioaren funtsa. Honela, San Andres osoan 8. Mailako erdiak bakarrik dira A eredu erabiltzen dutenak. Urkizun B eredu da nagusi eta lehenengo zikloa "D" ere bada. "Virgen de Arrate"ko ikastetxean geratzen dira Eibar guztiko "a" ereduko Eskolaurreko eta 1. zikloko 21 ume. Amañako ikastetxean 3. Maila arte "B" eredu ematen da, "A" handientzat geratzen delarik. Hemengoan den Josune Arratibelen hitzetan "B" eredu dagoeneko formalizatua dago. Matematikak eta Lengoaia kendu ezker, beste guztia euskeraz ematen da. Umeak oso ondo jarraitzen dute eta irakasle berri bat dator urtero, 3 erdaldun geratzen direlarik. Legalki "B" eredu bezala funtzionatzen dugu eta proiektu berri bat egiteko asmoa daukagu".

Izugarrizko aurrera-pausu hau ikastetxe pribatuetan ere argi azaltzen zaigu: La Salle guztiz finkaturik eredu biak (B eta D) eta monjetako bi ikastetxeetan "D" eskolaurrean eta "B" beste maila guztietan.

Duela 5 urte Eskolaurrean bakarrik ezagutzen zen "B" eredu no-raino heldu den ikusita ez dugu etsi behar. Hemendik aurrera geratzen zaigun bakarra, behar bada, zera izango litzateke: kalearekin dagoen desegokitasun hori zuzendu "Eibarren batez ere" Arantza Aranek, Arrasatekin konparatuz esaten ziguenez.

ITURRI ONETIK

- Benja Atutxa -



39 urtekoa. Institutoko irakaslea izatez, urtarrilatik Pedagogi Aholkularitza egiko (PAT) buru. Ingenieritza Industriaren ikasketak burutu ondoren, Matematikak eta Informatikako irakaslea. Euskerazko klaseak eman zituen orain dela 8 urte: 2 urtetan zehar.

Zeintzu dira, datuen arabera, eboluzioaren arrazoiak? Hizkuntza aldetik egoki erantzuteko zer baldintza bete behar da?

Azken bost urteotan gorakada handia izan dute B eta D ereduak bai eskola publiko eta bai pribatuetan; A eredu desagertzeaz dago oso ikasle gutxi jarraitzen dutelako.

Gorakada honen arrazoiak desberdinak dira: hizkuntza bakarrean hezkuntza eramatea baino, gurasoen kontutan harturik, bigarrena sartzen joatea txikitandik oso egokia da aurreko oso azkar ikasten dutelako hizkuntza berri bat eta bere garapenerako komenigarria delako.

Beste arrazoi bat ere badaude: sozialak, euskeraren aldeko joera ideologikoa, batez ere, nabarmentzen da kalean eta ekonomikoak, lanpostu askotan eskatzen bait da euskera jakitea.

Ondo erantzuteko, hezkuntza edo irakaskuntza sistemaren aldetik, baliabide batzuk jarri beharko lirateke: ikasle kopuru egokia, talde handiak bikoiztu: gaur eguneko eskola gutxi dituzten hizkuntza laborategiak gehitu, ikusentzun eta informatika tresnak erabiliz nahiz eta gaur egun ez egon material asko prestatuta.

Bestalde sistematik kanpora hizkuntza bat ikasteko, hau da, teorian jasotzen dena finkatzeko, beharrezkoa da praktikatzeko familiar, lagunekin eta beste harreman sozialetan. Eguneroko praktika hau ez baldin bada ematen, azkar ahazten da ikasitakoa. Hori ez gertatzeko beharrezkoak dira eskolaz kanpo aukerak ematea.

... eta gainera

2. Orrialdean:
 - Primizia: "Viaje al País de los recuerdos"
3. Orrialdean:
 - Eskola-Tailerra
- 4/5. Orrialdean:
 - "Zuekin Nago" (Narrazioa)
6. Orrialdean:
 - Oskar Artetxa mintzo
7. Orrialdean:
 - Arrillaga artzai txapelduna
8. Orrialdean:
 - Domusantu eguna



calcul
mecano
Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria
Telf: 70-07-50 / 70-11-95

EIBAR (Gipuzkoa)

FIAT

EIBAR

BITOR SARASKETA, 7

12 10 00
12 10 19

HOGEI, S.A.

Toribio Etxebarria: "Viaje al País de los recuerdos" Liburua berrargitaratua

Azaroaren amaiera aldean, San Andres inguruan, eibartar gehienok Toribio Etxebarriaren "Viaje al País de los recuerdos" liburua lehen aldiz irakurtzeko zoriona izango dugu. Lehen bider, izan ere, lehen argitalpena Caracas-en egin bait zen 1968. urtean eta orduko hartan 500 ale kaleratu zirenez gutariko asko eta askok, orain arte, orrialde eder horiek eskuarteaz izateko aukerarik ez dugu izan.

Oraingo 2500 aleko edizioa lehen-goaren faksimila izango da, hasierako orrialdeena ezik, bertan, Juan San Martinek egindako hitzaurrea joango bait da.

Liburuaren muinera joanda gerra aurreko Eibarren benetako kronika dela esan dezakegu. Umoretsua. Lehengo giroaren deskripzioa egiterakoan aparta: pentsakera, egoera soziala, gazte-gaztetako oroitzapenak,... Herri baten izana barrenearino aztertu du egileak, pasadizo mordo bat jaso ditu, industriaren so-

rtera aztertu... Hitz baten esanda: Eibarko orduko izateko modua goitik behera jorratu du. Eta guztiaren gain, demaseko grazia gauzak kontatzerakoan. Adibide bezala hona hemen udaltzain buruak Udalaritxostenean idatzi ziona Toribioki jaso bezala: "Tengo el honor de informar que el martes el concejal Sr. Amuátegui acompañado del guardia procedió a decomisar a... panadero de esta localidad doce panes de dos kilos por falta de peso, los cuales fueron llevados a las monjas del Hospital. Dios guarde...".

Erderaz dago, bai, baina gertaera askotxo daude euskeraz kontatuak. Orduko euskaldunen erderarekiko interferentziak zernolakoak ziren jakiteko liburu hau ikerketarako baliagarria izan daiteke. Irakurtzerakoan, garai hartan euskarak erderari sartzen zion ziri hura gaur egun erderak euskarari sartzen dion berbera dela berehalaxe ikusten dugu.

Zorionez, liburu hau kaleratu da,



baina oraindik hor daude armairu baten Toribio Etxebarriak egindako eta inoiz publikatu gabeko hainbat lan. Badaude baita noizbaiten publikatuak izan arren berriz argitaratze-

ko premia bizian dauden beste asko bere izkribuen artean. Badaukagu non ikertu eta ikasi... Udalak badauka argitara ematekorik... Ekin bai, baina jarrai.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Txalogarria

Ordua zen gazteak kontutan hartzeko, ze demontre gero!

Zorionak "Gazte gara gazte" gehigarria egiten duzuenoi. bai, ordua zen, zeren mundu guztiak edukitzen gaitu akorduan bakar bakarrik debekatu eta kritikatu behar gaituenean, bestela gazteok, ematen duenez, ez gara inoren eta ezeren erreferentzia.

Ezer gutxi edo deusik ere ez zaigu eskaitzen geure ekimen, grina, desio, idea, egon ezina, gauzak egin nahia, geure identitatea garatu ahal izateko. Eta uste dugu agintean zaudetenok ere gazteak izanak zaretela. Ez etorri zuek ere gazteroa igaro zenuela hainbeste lelokeriarik gabe esanez. Beste sasoi batzu ziren, Eibarrek beste aukera batzu eskaintzeaz gain pertsona eta bere baloreak beste batzu ziren. Konparaketek ez dute balio. Sasoiaren sasoi gauzak. "...eta kitto" ren moduko espresabide-espazioak eta espantsiorakoak beharrezkoak zaizkigu. Eta horiekin batera astialdirako programa eta politika zabala, geure onespena izango duena; nahiko paternalismo dugu irakaskuntza sistema eta etxekoarekin. Kokoteraino gaude taberna zulo eta Parrokia ondoko bañkoetako giro ugartuarekin.

Ea bada noizbait jaramonik egiten zaigun.

Bakartiak koadrila

Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno, hori hala bada eta IKUSONIKek oparitutako duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA - EUSKARA ZERBITZUA "...eta Kitto Sariketa"

19. Aleko sariketaren erantzuna: "Argazkian agertzen den irudia Amako T. Anitua kalean dago" zen. SARITUA: ANA ARIZMENDIARRIETA, Urki kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Azaroaren 15rako bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!

IKUSONIK

DISKA SALDUENAK

EUSKARAZ

- EGAN: "Erromerian"
- TXEROKEE: "Mikel Laboaren kantak"
- NEGU GORRIAK: "Negu gorriak"
- DELIRIUM TREMENS: "Hiru aeroplano"
- TAPIA ETA LETURIA: "Juerga asmoan"

BESTELAKOAK

- PAVAROTTI, DOMINGO, CARRERAS: "Concierto de Metha"
- ELTHON JOHN: "Sleeping with the past"
- ACDC: "The razors edge"
- IRON MAIDEN: "no prayer for the dying"
- INMACULATE FOOLS: "Another maris world"




Eibarrek monumento mailan ezer ez duela diotenentzat begira T. Etxebarriak "Viaje" liburuaren azalerako aukeratu zuen lehengo Kifarra balloko gurutza erromaniko hori. Bertan, gaur egun arrastorik ere ez bada geratzen, Urkidiko San Lorenzo ermita zegoen, 12 metroko luzerakoa eta 6,50 metroko zabalerakoa, Maria de Malleak hiltzerakoan bere diruarekin horrela egiteko agindua eman bait zuen. Arraten zegoen San Lorenzo jeitsi zuten hara 1763. urtean. San Gregorio egunean, maiatzaren 9an hain zuzen, errotatik egiten ziren ermita horretan gariak eta arteok arrik izan ez zezaten. Prozesio eguna izaten zen eta gero ogiaren eskaintza egiten zuten eibartarrek San Gregorioren irudiaren aurrean. Arrastorik ez, baina zorionez oraindik kurutzea zutik! Kurutzea bota eta etxerik egingo ote duten beldur gara!

eustakitto

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Aurreko zenbakian Argazki Notizia eta Sariketako argazkiak alderantziz zeuden.





HARTZAREN
KOBATIK

SLOGANS S.A.

Askoren ustetan, bizi dugun une historiko hau "publizitatearen garaia" deienezake. Teoria hau jarraituz, publizitateak bideratzen ditu gure bizitzaren hildoa, gizakiek guztiz sinisten dutelako iragarkietan agertzen diren mezuak.

Horrenbeste ez nuke esango, ba!. Publizitateak tarte handi bat betetzen du gure gizartearen, baina jendeak katxondeoz hartzen ditu askotan publizitateak botatako inusentekeriak. Maiz pentsatu dut iragarki guztiak enpresa handi eta bakar batek, hots, multinazional batek, asmatzen zituela. "Slogans S.A." edo antzerako zerbaite.

Agian, nire susmo hau gehiegikeri bat da. Dena den, publizitateak ba ditu, bai, bere alde elebreak. Azter dezagun, esate baterako, alderdi poditikoek Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpainen erabiltzen ari diren lema. Guztiak mamitsuak dira benetan.

Talde batek guztiok dugun alde patrimonialista ikutzen du, "Gurea Euzkadi da" esanez. Beraiena. Horrela, finka honen jabetza betikoen eskuetan jarraituko duela antzematen da. Mezu subliminala. Chapeau.

Alde komertziala jotzen dutenak ere badira. Radiokasette edo hotzgaile saltzaileen antzera, "zure garantia" eskeintzen digute. Lau urteren buruan bere promesak betetzen ez badira, emandako botua itzultzen dute.

Beste batzuk, euskaldun tradizionalen moduan, indarrean datoz. Horregatik, gobernu "indartsu" baten alde eskatzen dute hiritarren konfidantza. Agian, zapuztutako gure Euskal-Herri(harri) hau jasotzeko Perurenaren antzeko Lehendakari bat behar da.

Modernismoak badu bere tarte ere. "Euskal-Herri berria" egin behar duten batzuk agertu dira. Hau zoritxarra!. Gaur arte itxaron behar izan dugu pionero hauek bide berria seinatu arte, Daniel Booneren moduan. Zenbat denbora alferrik galduta!

Modan dagoen integrismoa jotzen dutenak ere badira. Bere esanetan, beraiei emandako botua "botorik botoena" izango litzateke. Beraz, ez ezazue erdipurdiko botorik eman.

Bukatzeke, zientziak, matematikaren eskutik, badu bere tarte kanpaina honetan. Talde batek "100 mila euskaldunetik gora biltzen dituela adierazten du. Ikaragarria. Ia Camp-Nou futbol zelaian igandero biltzen diren katalanak. Dena den, erun edo mila euskaldunetik gora. Jendekia izugarria, bai.

Udal eskola tailerra

Gazteak ofizioak ikasteko sortua

Jarraipena kolokan, hurrengo korporazioaren erabakiaren zain

"Gure helburu printzipala langabezian dauden gazteak profesionalki formatzea da", dio Iñaki Etxanizek, Eibarko Udalak antolatutako Eskola-Tailer zerbitzuaren zuzendariak. Hiru urteko bizi edukiko duen zerbitzu honek bere ibileraren erdia igaro du, emaitza bezala AYAKo edifizioaren eta mataderoaren berrikuntzak jarritz. Udalak antolatutako ikastaro hau INEM era-

kundearen laguntzari esker bideratu daiteke, 400 miloiko presupuestoaren hiru herenak berak ordaintzen bait ditu. Dena den, programan parte hartzen duten 12 monitorea Udaletxeak kontratatutakoak dira, baina, oraingo hiru urteko zikloa bukatzen denean, hezkuntza profesional programa honen jarraipena kolokan egongo da, interes politikoen arabera.

Bi helburu nabari daitezke hezkuntza profesional programa honen jatorrian. Alde batetik, langabezian eta formazio profesionalik gabe dauden hainbat gazteri ofizio bat irakastea. Bestetik, hondatutako eibartar edifizio batzuk berri eta konpondu, gero Udaletxeak zerbitzu publikoak kokatzeko erabili ditzan.

• Lan gogorra

Ehun bat gazte onartuak izan ziren proiektu honetan, 60 mutil eta 40 neska. Beraiek burututako lana doblea da: goizetan lan praktikoei ekin behar izaten diote, edifizio publikoen berrikuntza eta konponketa lanetan arituz. Egutero lau ordu dihardute lan praktikoa hauetan, bakoitzak aukeratutako ofizioetan: igeltzaritza, arotzak, elektrizistak...

Lan praktikokoak goizetan izaten direnez, arratsaldeak klase teorikoei zuzenduta daude. Horrela, aktibitate praktikoei irakatsitako guztia- ren mamia sakondu eta argitu nahi da. Egutero lau ordu izaten dira, eta arduradunen esanetan, polemika txiki bat sortu zuten. "Hasiera gogorra izan zen alde horretatik" dio Iñaki Etxanizek programaren zuzendariak Kontutan hartu behar dugu hona mota guztietako jendea etorri dela, eta denek ez zuten ideia berbera ikastaro hauetatik. Askorentzako, diru apur bat irabazteko aitzaki bat besterik ez zen. Langabezian zaudenean hileko 33.000 pezeta eskuratzea ez da baztertzeko gauza, eta askok nekez hartzen zuten klase teorikoetara joateko beharra".

Gaur egun, beti Iñaki Etxanizen ustetan, arazo guzti hauek gainditu dira. "Jendeak ulertu du ikastaroaren helburua, eta hasieran sortutako arazoak guztiz gainditu dira. Orain, denek dakite hau hezkuntza profesionaleruntz zuzendutako programa bat dela, eta ez ezer egin gabe dabilzan gazteendako aparkalekua". Denboraren poderioz, ikastaroari seriotasun bat ematea lortu da, itxuraz.



Helburu bi: Lan gabezia eta formazio profesionalik gabe dauden gazteei ofizio bat irakastea eta hondatutako edifizio batzu berritzea.

• Titulazio bila

Seriotasunarena da, gaur egun, Eskola-Tailerreko zuzendariaren kezkarik haundiena. Bere ustez, nahiz eta beraiek profesional batzuk formatzen aritu, lan guzti horrek ez du balio haundirik programa

bukatu eta gero titulorik jasotzen ez bada. "Onuragarria litzateke tituloren bat jasotzea ikastaroa amaitzerakoan" -diote Eskola-Tailerreko zuzendariak-"Gaur egun, tituloren bat beharrezkoa da. Beraz, hiru urteko ikastaroa gainditu duten ikasleek merezi dute beren gaitasun

profesionala frogatzen duen sari bat. Gainera, horrela motibazio bat sortu genezake ikasleengan lanean gogor aritzeko".

Titulazio hori lortu nahian, Gipuzkoako Eskola-Tailer guztiak elkartu dira, koordinadora bat osatuz. Era honetan, erakunde hauei titulo eta gaitasun mailak banatzeko eskubidea ematea aldarrikatzen dute. Beren asmoa, lehenengo, bigarrenengo et hirugarren mailako ofizialen tituloak banatzeko eskubidea lortzea da. Nahiz eta negoziaketak hasiak izan, oraindik urrun ikusten dute helburu honen lorpena. "Negoziatioak hasiak dira, bai, baina oraindik ez dugu argi ikusten erantzuna. Dena den, ba dugu oraindik denbora franko"- diote Udal Eskola-tailerreko arduradunek.

• Jarraipena kolokan

Alde guztiak errekonozitzen dituzte programa honen lorpenak: 100 bat gazte lan abeziatik atera eta profesionalki formatu jabetza publikoko zenbait edifizio birmoldatu eta hezkuntza profesionalaren baitan dagoen hutsune bat bete. Hala eta guztiz ere, Eskola-Tailerreko programaren jarraipena, bere hiru urtetako bizi amaitu eta gero, zailtzan dago.

"Ez dakigu zer gertatuko ote den gure programarekin hiru urteak bete eta gero" -diote ikastarorako kontratatutako langileek-. "Gure ustez, programa hau guztiz onuragarria izan da, bai herriarentzako, eta baita parte hartu duten gazteentzako ere. Baina jarraipena politikoen esku dago, jakina".

Hurrengo urtean hauteskunde municipalak izango kitugu Eibarren, eta Udal Gobernu Taldean aldaketak egon daitezke. Beraz, Baliteke profesional hezkuntzara bideratutako programa honek eten bat jasotzea. Dena den, "Eta Kittok-..." jasotako inpresioen arabera, bai eibartar politikoen artean eta langileen artean ere, programa honen jarraipena ia zihurtatu genezake.

bankoa

INTERES HANDIKO KONTU KORRENTEAK
ERRENTAGARRITASUN PAREGABEA

ZULOAGATARREN, 7

TFNOA. 11 39 40

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK

ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tfnoa: 11 00 70

Artex Eibar Futbol taldeko jokalaria Jo Ta Ke lanean titular moduan jokatzeko asmotan

Oskar Artetxe, hogeitahiru urtetako gaztea, bere auzoko futbol talde batetan jolasten hasi zen. Hortik, "Lengokoak" taldera pasa zen eta geroago "Urki" taldera. Han, federatu egin zen, eta hor bi urte jokatu ondoren, Soraluzeko taldean parte hartu zuen. Eibarrera heldu baino

lehen, bere azkenengo taldea, Ondarroako "Aurrera" izan zen; ekipo honetan burututako bi kanpainak oso onak izanik. Esan beharra dago, Oskarrek futboleko jokatzeko gain, Eskola Armerian, Mikromekanikako 5garren kurtsoa ikasten diharduela.

Irailean, Eibar futbol taldean, arreta handia piztu duen jokalaria berri bat ikusi dugu. Futbolari hau, Oskar Artetxe eibartarra da. Miguel Etxarri, Eibarko entrenatzailea, mutil gazte honengan konfiantza dauka eta hau, argi eta garbi erakutsi du Artetxek partiduen haieratik, taldearen barnean sartuz.

Oskar, entrenamenduetan gogor aritzen da ordezkatze edo suplenzien aurka burrutatuz. Baina garrantzitsuena momentu honetan, duen lesioa sendatzea da. Dena den bere asmoak, aurtengo kanpainarako, titular moduan jokatzeko amaitzea da.

Eibarko ekipora etorri baino lehenago, aipatu behar da, "Sestao"ren eskaintza bat eduki zuela hemengo taldearekin batera, baina hemen geratzea erabaki zuen.

Kanteraren arazoa

Eibarko futbol taldean, herriko bi jokalarik bakarrik hartzen dute parte; Amador hirugarren porteroa, eta Artetxe erdi aurrelari bezala jokatu.



Beraz, ikusten denez, kanterarekin arazo handi bat dago. Artetxeren hitzetan, "talde regionaletatik, bigarren A mailara, alde handia dago; eta oso ondo jokatu behar duzu maila gorena honetan parte hartu nahi baduzu". Hala ere, futbolari honentzat, Eibar taldekoek ez diete talde hauei kasu handirik egiten eta hau oso larria da.

"Peña Artetxe"

Eibarko jokalaria askok bezala, Oskar Artetxek ere bere ohorez peña bat dauka irailaren 28tik aurrera. Bere ustez "peña berri hau osatzen


duen jendea oso jatorra da eta asko laguntzen dute, zeren ni animatzean, talde guztia animatzen dute eta hori oso mesedegarria da guretzat".

Joan zen urteko kanpainaren ondoren, jendea bihozketua gelditu zen eta honek talde guztia kikildu zuen. Beraz, eta Artetxek dihoen bezala, "taldeari denbora eman behar zaio, eta batez ere, jendearen animazioa eta laguntza oso beharrezkoa da". Jokalari Eibartarraren ustez, futbolzaleak berarengan esperantza handiak jarri dituzte eta laguntza handia jasotzen ari da beraiengatik eta "prentsa-ren aldetik ere kritika onak jasotzen ari naiz eta benetan pozgarria da".

Azkenik, komentatu beharra dago, taldea oso animaturik aurkitzen dela eta aurtengo paper ona betetzeko asmotan daude. Orain arte nahiko ondo daudela erakutsi dute, hala ere, jokatu dituzten partiduetan, nahiko eskuragarriak ziren eta positibo batzuk ateratzeko moduan. Baina gogoratu, Eibar taldea, denon artean lagundu behar dugula

... Eta kitto!-k
Gomendaturik

Joe Satriani edo bere abiadura eroaren sinfonia



Gure hileroko "Eta Kitto-k gomendaturik" sekzio honetan, gehienbat, gure inguruko talde ezagun edo ez hain ezagunen lan berri edo ez hain berriak aurkezten saiatu gara.

Baina hilabete honetan gure mugak zabaldu nahi izan ditugu, eta horretarako italiar gitarrista baten diska entzuterako gonbidatzen zaituztegu.

Bere izena Joe Satriani da. Askorentzat zihur ezezaguna dela, baina musikoetaz informatzea gustatzen zaien horietako askori, seguraski oso ezaguna egingo zaie, gitarristen artean gorenatariko postuak lortu bait ditu. Bere garaiko beste gitarrista batzuk aipatzekotan Yngwei Malmsteen's, Vandenberg edo Steve Vai izendatuko ditugu.

1987an grabaturiko "SURFING WITH THE ALIEN" LP hau, hamar abestiz osaturik dago, adibidez diskaren izenburua daraman abestia

"SURFING WITH THE ALIEN" edo "ALWAYS WITH ME, ALWAYS WITH YOU" A aurpegian eta "HILL OF THE SKULL" edo "ECHO" B aurpegian.

Esan beharra dago, abesti guztiak instrumentalki direla, hau da, ez dagoela ahotsik, eta hau horrela, norbaitek pentsa lezake: ba bai aspergarria! Horrela ez dela frogatzeko erarik onena entzutea litzatekeela uste dugu eta zihur iritzi aldatuko lukeela, zeren diska hau hasieratik bukaerara indarrez horniturik dago eta entzumenarentzat liluragarriak diren soinu ezberdinak manipulatu ditu.

Lasaigarri gisa erabiltzeko oso ondo dago baina autoan a toda pastilla joateko musikak atsegin badituzu, hau da, gitarra distortsionatu indartsuak eta punteo azkarrak, bertan aurkitzeko aukera daukazu.

DENBORA PASA

LETRA KENKETA

Batuketa honetako letra bakoitzari zenbaki bat dagokio. Zein da batuketa honetako letra bakoitzaren balioa? Zergatik? Ondoko kuadro honetan duzun zenbaki bakoitzaren azpian, ipin ezazu zure ustez hauetako bakoitzari dagokion letra. Zenbaki bati letrarik ez dagokionean ikurra ipin • ikurra ipin iezaziozu. Koadroko zenbaki baten azpian letra bat azaltzen bada, har ezazu aurrez ematen dizugun laguntza bezala.

NIRE
+
ETXE

BERRI

1	2	3	4	5	6	7	8	9
						•	1	

ZER IKUSI HURA IKASI



Egilea: Miguel Angel Martinez
Kamera: Pentax Super-A
Objetiboa: 50 mmkoa
Pelikula: f-22 VALCA
Errebelatzailea: Kodak etxeko D-76a (10,5 minutu)
Papera: Recorapid 3. gradua
Errebelatzaile positiboa: Neutol WA

Argazki talde honek 5 argazki erakutsi ditu orain arte. Klub Deportiboko Argazki Taldeko langile bati esker datu tekniku horiek ematen dira beste batzuk ere erabil ditzaketelako. Horrela erail daitezkeen elementuak ikus daitezke. Argazkiak atsegin gertatuko zaizkizuelakoan.

BULEGO MATERIALAK ETA ALTZARIAK

KOMERTZIALA

ETESA

Bidebarrieta, 66 - Post. Kutxa 428 - Tfnoa. (943) 121973/714 - Faxa: (943) 127068
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Oñatiko txapelketa internazionallean**Jose Antonio Arrillaga****artzaiñ txapeldun eibartarra**

Gaur egunian artzaiñan bizitzia Eibar eta inguruetan zelakua dan ikusi daigun Jose Antonio Arrillaga artzain modura ibiltzen denakin izan dogu elkarrizketia. Hainbat eta hainbat bidar ardi txakur txapelketetan parte hartu izandakua dogu ta azkenengo txapelketia aurten irabazi dau Oñatin. Bere esperientzia kontatzen desku, ta berak diñonez: "gaur egunian lana euki izan ezker ezta iñor mendixan bizitzen gelditzen".

— Batzuk errez irabazi zenduala, ta beste batzuk kontrakua diñue, zer diñozu zeuk?

"Errez eh...ez aĩn errez ze... han kontrarixuak asko izaten dia. Hor probintzia bakotxeko kanpeoi urtendakua izaten dira. Oñatikua gaiñera internazionala izaten da: frantsesak ta... beste bat Kanadakua be izan da aurten ta... errez ez!! Ze danetik etortzen dira horra txapelketara ta, begira dauanak pentsatzen dau erreza dala baiña bastante konpetirua egoten da.

Aurten 12 parte hartzaille izan biharrean 10 izan dira, Leku askotakuak egoten dira hor, baiña Ingalterra ta ez dira etortzen ze txakurrak higienegaikitik edo kuarentenan jartzen dabez."

— Oñatin bittan irabazi dozu; ezta?

"1980xan etara neban lelengua txakur batekin, eta aurten barrido etara dot. Gero beste bi bidar bigarren geratu naiz, 85ian bata eta 83an bestia.

Oñatiko txapelketia hamen daonik haundixena da. Txakur diferentiekirin irabazi dittut txapelketa bixak.

Gero kontutan euki bihar da probintzi guztixetan eztaola afiziño bardiña. Hamen bai, hamen Euskal Herrixan daniñan dao. Castilla ta beste herri batzutan nahiz ta ganaua ugari izan, askotan hamen baiño gehixao egoten da ganaua ta, eztao preparaziñorikan txakurrak konkursatzera bialtzeko. Ni Toledon be izan naiz noizbaitten esibiziñuak eitten ta egiña esateko han txakurra bakoitza bere modura dabil. Harek ez dotse ezeri erantzuten ta jaramonik eitten."

— Ze diferentzixa dao artzain eta bestelakuen artian?

"Artzaiñ txakurrak bihar dabena zera da: ganauandako afiziñoduna izan bihar dabela. Ta gero ba... izan bihar dau obediencia ze: noberak esandakua eiñ eiñ bihar dau. Txakurra beti ugezaban berbiari begira egon bihar dau. Txakurra zeuk nahi dozun klasekua eruan leikezu bere biharra ondo eitten badau ta zeurekin gustora eta zeu berakin gustora bazoaz. Txakurrari erakutsi eiñ bihar jako, baiña... danak eztabe ikasten!! Pazientzia haundixa bihar da txaku-



Jose Antonio Arrillaga irabazitako azken xapel eta txakurrarekin

"1980xan etara neban lelengua txakur batekin, eta aurten barrido etara dot. Gero beste bi bidar bigarren geratu naiz, 85ian bata eta 83an bestia.

Oñatiko txapelketia hamen daonik haundixena da. Txakur diferentiekirin irabazi dittut txapelketa bixak.

rrei erakusteko ta ordu asko sartu. Txiki-txikittatik hartu eta erakutsi bihar jakue. Txakurran topia 12 urtekua izaten da gutxi-gora bera, 9 urteraarte eiñ ahal izaten dau biharra ze txakur batentzako urte bete pertsona batentzako 10 urte dianak izango litzakez. Baiña dana dala hor lelengo

— Zelakua izan zan zure hasikeria?

"Ni 16 urte inguru izango dira hasi nitzal. Osaba batek esan zotan ta... ni kanpeonatua ikustera asko juaten nitzan. Ta halako batian zera: -geuk

bajatuta gaoz baiñ osabak dakaz ardidak eta herekin iiltzen naiz.

— Artzantzia ofizio modura zelan ikusten dozu?

"Artzaiña izatia gogorra da gero, eh! Harek eztaba egun bat libre ta... bildots sasoian ta ume sasoian lorik be eztao eitten. Hau gogorra da izatez, honek dakana da... gustau eiñ bihar!! Hamen inguruan nahiko eskasa da egoria gazte gitxi ikusten dira.

Oiñ artian esnia saltzen zan, baiña gero ezin zala saldu ta... baiña ondion saltzen da. Baserriko esnia ezta txarraua, hobia da!! Baiña horrek zentralok eta horrek haundixok... obligau eitten dabe. Len artzaiña errezau zelan ze: esnia be saldu eitten zeban kalera, gaztaiak eiñ biharrik bez etxian. Oiñ gaztaiak eiñ eiñ bihar. Len gaztaia gitxi eitten zan saltzeko. Eibarren gaur egunian oso gaztai onak eitten dira.

Ni artzai modura orduetatik kanpo ibiltzen naiz. Egunero txakurra hartu ta mendira jun bihar!! Zenbat eta gehixao jun eta mentaja. Baiña gaur egunian basarrixak ustu ta ustu doiaz lana topauko balebe kaliañ danak ustuko litzakez. Lengo zarrek ba... besterik eztabe ikusi ta... hantxe segi!!

• Begira dauanak pentsatzen dau erreza dala baiña bastante konpetirua egoten da.

• Artzaiñ txakurrak bihar dabena zera da: ganauandako afiziñoduna izan bihar dabela.

• Len artzaiña errezau bizi zan ze: esnia be saldu eitten zeban kalera.

bihardana da, razia ona. Beti eztabe razakuek be onak urtetzen, nik razakuek onak txakurra euki dittut.

Gero jentak esaten dau txakurrakin berba eittia pareta! Berba eittia lakua dala ta... hor konfundiruta dao. Txakurra laguna baiño gehixao izan leike ze... berari zeñek kasu gehixen haretxi gero berak be."

be apuntau baijuau- ta halantxe hasi nitzan; harek hirugarrena etara zeban ta nik zazpigarren puestua hartu neban neure lelengo txapelketan. Ta gero ba... gero ta mentajitzen mentajitzen...

Hasi nintzianian trukuak eta banekixazen, baiña orduan ez zan preparatzen oiño moduan. Oiñ kalera

Jatetxe - Erretegia

JOSHE MARI

OSTATUA

Arrageta, 18 - Tfnoa: 12 08 65

20600 EIBAR

MUÑO A

ZURE AUTOARENDAKO
ORDEZKO PIEZAK

BIDEBARRIETA 14, 16.

Tfnoa: 11 13 17
11 62 28

Laramendi

Etzerako
elektrotresnak

Estaziño, 6T

Tfnoa: 11 30 11

Jeronimo

Drogeria

Jostailu eta opari-artikuluak

Calbeton, 11

Tfnoa: 11 10 14



KOMERTZIALA

ETESA

BULEGO MATERIALAK
ETA ALTZARIAK

Bidebarrieta, 66 Tfnoa: (943) 121973
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

